MUFACEk, Estatuko Administrazio Orokorraren organismo publikoak, administrazio-mutualismoaren sistema kudeatzen du, Estatuko funtzionario zibilen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren estaldura-mekanismoa den aldetik.

Mutualitatea Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikita dago, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez.

Mutualitateak ikuspegi berritzaile baten alde egin du zerbitzu-prestazioa digitalizatuta eta, aldi berean, probintzia-zerbitzuen protagonismoa indartuta, mutualisten bilgune eta arreta-gune izateko.

MUFACEren Zuzendaritza Nagusiaren mende dagoen administrazio-bulegoa —Partaidearen Bulegoa— Estatuko Administrazio Orokorraren Pentsio Planaren kudeaketari lotuta dago.

## ZERBITZUAK

- **MUTUALISTEN ETA ONURADUNEN AFILIAZIOA** aldez aurreko eta ezinbesteko urrats gisa arauan xedatzen diren baldintzen arabera zerbitzuak eta prestazioak eskuratu ahal izateko.
- **PRESTAZIO SANITARIOAK.** Mutualitatearen asistentzia sanitarioa Estatuko Osasun Sistemaren parte da (EOS):
  - » **Asistentzia sanitarioa.** Erakunde hornitzaile publiko edo pribatuen bitartez eskaintzen da, sistema sanitario publikoarekin izenpetzen diren itunen bidez (GSIN eta AE), eta asistentzia sanitario pribatuko aseguru-entitateekin adostutako hitzarmenen bidez. Estatuko Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu erkideen zerrenda estaltzen du. Atzerrian destinoa duen langileari atzerrian asistentzia sanitarioa emateko berariazko itun bat dago, eta aldi baterako lekualdaketen gastu jakin batzuk ordaintzen dira, ezarritako betekizunak betetzen badira.
  - » **Erakunde-aldaketa arrunta.** Erakunde-aldaketa eska daiteke, behin bakarrik, aldaketa-aldi arrunt bakoitzean.
  - » **Batzorde Mistoetan erreklamazioak aurkeztea,** itundutako aseguru-entitateen jarduketak direla kausa, Itunarekin bat ez badatoz.
  - » **Prestazio osagarriak.** Laguntza ekonomiko baremátuak, produktu eta zerbitzu sanitario jakin batzuen ondorioz sortutako gastuei aurre egiteko.
  - » **Prestazio farmazeutikoa.** Hautatu den aukera sanitarioko medikuei dagokie errezeta-preskripzioa egiteko ardura, aukera horren eremuan, errezeta ofiziala erabilita, dela elektronikoa, dela paperezkoa.
- **GIZARTE-PRESTAZIOAK,** laguntzak eta subsidioak, pertsona mutualisten babes-premiei erantzuteko, izan inguruabar partikularren ondoriozkoak, izan bizi-zikloaren ondoriozkoak.
  Subsidioa aldi baterako ezintasunagatik (ABE) · Subsidioa haurdunaldiko arriskuagatik eta edoskitze naturalagatik · Kalte-ordaina baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrengatik · Prestazioa baliaezintasun handiagatik · Laguntza soziosanitarioak. Urtero egiten da deialdia · Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza · Laguntza asistentzialak. Urtero egiten da deialdia · Laguntza ekonomikoak erditze, adopzio edo harrera anizkoitzagatik · Prestazioa desgaitasunen bat duten seme-alabak edo adingabeak zaintzapean hartzeagatik · Ikasketetarako bekak. Urtero egiten da deialdia · Erretiro-subsidioa · Heriotza-subsidioa · Hileta-laguntzak · Funts bereziko prestazioak
- **INFORMAZIO-ZERBITZU OSAGARRIAK**
  · MUFACEren webgunea (www.muface.es) · Kontsultak egitea 060 telefono-zenbakian eta web/App inprimakian · MUFACE 75 · "X" (lehengo Twitter) eta Linkedin · Newsletter
- **LAGUNTZA-ZERBITZU TRANSBERTSALAK**
  Mutualistei kudeaketak errazten dizkieten zerbitzuen multzoa: · Eskaeren egoera · Mutualisten datuak - Ziurtagiriak lortzea

Egoitza elektronikoaren bidez izapidetu daitezke zerbitzu horiek, kasu askotan aplikazioaren bidez, baita MUFACEren probintzia-bulegoen eta bulego eskuordetuen bidez ere, dela aurrez aurre, dela posta arruntaren bidez.

## EMANDAKO ZERBITZUEN KALITATE-KONPROMISOA

***Bizkortasuna kudeaketan***

1. Itundutako entitateen asistentzia sanitarioko jarduketen ondorioz Batzorde Mistoari egindako erreklamazioak ebaztea gehienez sei hilabeteko epean, MUFACEk eskaera jasotzen duenetik hasita, baldin eta Espainiako Batzorde Mistoak esku hartzen badu, edo hiru hilabeteko epean, espedientea probintzia mailan ebazten bada.
2. Hortz eta begietako prestazio osagarrien eskaerak gehienez 10 egun balioduneko epean ebaztea MUFACEk eskaera osoa jasotzen duenetik hasita.
3. Gaixotasun zeliakoa duten pertsonei laguntza soziosanitarioa emateko eskaerak gehienez 5 egun balioduneko epean ebaztea MUFACEk eskaera osoa jasotzen duenetik hasita.
4. Aldi baterako ezintasun eta haurdunaldiko edo edoskitze naturaleko arrisku-kasuetako subsidioen eskaerak gehienez 7 egun balioduneko epean ebaztea, langile-organoaren eta mutualistaren informazio osoa MUFACEren esku dagoenetik hasita.
5. Erretiro, heriotza edo hileta-laguntzaren subsidioa gehienez 7egun balioduneko epean ebaztea MUFACEk eskaera osoa jasotzen duenetik hasita.
6. Laguntza asistentzialen urteko deialdia urte naturaleko lehen seihilekoan argitaratzea.
7. Programa soziosanitarioen laguntzen urteko deialdia urte naturaleko lehen seihilekoan argitaratzea.
8. Ikasketa-beken urteko deialdia urte naturaleko lehen seihilekoan argitaratzea.

***Arretaren eta informazioaren kalitatea***

9. Webgunea etengabe eguneratzen da.
10. Aplikazioan mutualistentzako gutxienez 2 zerbitzu gehitzea urtean.
11. Mutualisten Informazio Bulegoak berehala erantzutea 060 telefonotik bideratutako kontsulta pertsonalizatuei.
12. Mutualisten Informazio Bulegoak gehienez 5 egun balioduneko epean erantzutea egoitzaren/aplikazioaren bidez egindako idatzizko kontsultei.
13. 75 urte edo gehiagoko mutualisten aldetik jasotako telefono-deiei lehentasunezko arreta ematea (MUFACE75).

***Partaidearen Bulegoaren konpromisoa (Estatuko Administrazio Orokorraren Pentsio Plana)***

14. Estatuko Administrazio Orokorraren Pentsio Planari edo gizarte-aurreikuspen osagarriari buruzko kontsultei gehienez bi egun balioduneko epean arreta ematea, MUFACEk jasotzen dituenetik hasita, Estatuko Administrazio Orokorraren planaren partaideenak eta onuradunenak badira, edo administrazio publikoetako enplegaturen batenak.

## EMANDAKO ZERBITZUEN KALITATE-KONPROMISOAREN ADIERAZLEAK

1. Itundutako entitateen asistentzia sanitarioko jarduketen ondorioz Batzorde Mistoari egindako erreklamazioetatik, sei hilabeteko epean ebatzi direnen ehunekoa, MUFACEk eskaera jasotzen duenetik hasita, baldin eta Espainiako Batzorde Mistoak esku hartzen badu, edo hiru hilabeteko epean, espedientea probintzia mailan ebazten bada.
2. Hortz eta begietako prestazio osagarrien eskaeretatik, gehienez 10 egun balioduneko epean ordainketa-ebazpena jaso dutenen ehunekoa, MUFACEk eskaera osoa jasotzen duenetik hasita.
3. Gaixotasun zeliakoa duten pertsonei laguntza soziosanitarioa emateko eskaeretatik, gehienez bost egun balioduneko epean ebatzi direnen ehunekoa, MUFACEk prestazioa aitortzeko behar den dokumentazio osoa jasotzen duenetik hasita.
4. Aldi baterako ezintasun eta haurdunaldiko edo edoskitze naturaleko arrisku-kasuetako subsidioen ordainketa-ebazpenetatik, gehienez 7 egun balioduneko epean eman direnen ehunekoa, MUFACEk behar den dokumentazioa jasotzen duenetik hasita.
5. Erretiro, heriotza edo hileta-laguntzaren subsidio-eskaeretatik, gehienez 7 egun balioduneko epean ebatzi direnen ehunekoa, MUFACEk prestazioa aitortzeko behar den dokumentazio osoa jasotzen duenetik hasita.
6. Laguntza asistentzialen kasuan, urte natural bakoitzeko lehen seihilekoan argitaratutako urteko deialdien kopurua.
7. Laguntza soziosanitarioen kasuan, urte natural bakoitzeko lehen seihilekoan argitaratutako urteko deialdien kopurua.
8. Ikasketa-beken kasuan, urte natural bakoitzeko lehen seihilekoan argitaratutako urteko deialdien kopurua.
9. Urte naturalean egindako web-eguneratzeen kopurua.
10. Aplikazioan sartutako zerbitzuen urteko kopurua.
11. Urte naturalean 060 zerbitzuak bideratutako deien guztizkotik, berehala arreta eman zaien deien ehunekoa.
12. Web-inprimakiaren/aplikazioaren bidez egindako kontsultetatik, gehienez 5 egun balioduneko epean arreta eman zaienen ehunekoa.
13. Mutualistek egindako deien guztizkotik, MUFACE75 zerbitzuak berehala arreta eman dien deien ehunekoa.
14. Estatuko Administrazio Orokorraren planaren partaideek eta onuradunek edo administrazio publikoetako enplegatuek Estatuko Administrazio Orokorraren Pentsio Planari edo gizarte-aurreikuspen osagarriari buruz egindako kontsultetatik, Partaidearen Bulegoak gehienez bi egun balioduneko epean, MUFACEk kontsulta jasotzen duenetik hasita, arreta eman dienen ehunekoa.

## KEXAK, IRADOKIZUNAK ETA ZORION-EMATEAK

Inprimakiak erabiltzaileen eskura daude. Nola aurkeztu:

- **Internetez,** mutualitatearen egoitza elektronikoaren bidez.
- **Aurrez aurre,** probintzia-zerbitzuetan, bulego eskuordetuetan eta zerbitzu zentralen erregistro nagusian eskuragarri dagoen inprimakiaren bidez.
- **Posta arrunta,** egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimakiaren bidez, probintzia-zerbitzuei, bulego eskuordetuei edo mutualitatearen zerbitzu zentralei zuzenduta.

## ZUZENKETA-NEURRIAK

Karta honetan adierazi diren konpromisoak ez direla bete uste bada, erreklamazio bat aurkeztu ahalko da horren ardura duen unitatean. Behin erreklamazioa aurkeztuta, organismoaren arduradun gorenak, gehienez 15 egun balioduneko epean, konpromisoa zergatik ez den bete azalduko dio erabiltzaileari, okerra zuzentzeko hartu dituen neurriak jakinaraziteaz gain.

Karta honetan adierazitako konpromisoak betetzen ez badira Administrazioak ez du inolaz ere ondare-erantzukizunik izango.

## KARTAREN ARDURA DUEN UNITATEA

MUFACEren Idazkaritza Nagusia, Paseo de Juan XXIII, 26 28071-MADRID

## MUFACE-RA JOTZEKO BIDEAK

**(telefonoak direktorioan bilduta daude)**

- Web-orrialdeko inprimakia
https://www.muface.es/muface_Home/eu/atencion-al-mutualista/Formulario.html
- Muface-ren aplikazioko inprimakia (aurretiaz erregistratu gabe)
https://www.muface.es/muface_Home/eu/atencion-al-mutualista/app-movil.html
- Egoitza elektronikoa
https://sede.muface.gob.es

Izan gogoan gure bulegoetan Cl@ve identifikazioa ematen dugula gure zerbitzu elektronikoak bizkor eta seguru kudeatzeko.

**MUFACE-REN BULEGOEN ZERRENDA**
**SERVEIS CENTRALS**
**ZERBITZU ZENTRALAK**
**(aurrez aurreko arretarik gabe)**
Paseo de Juan XXIII, 26
28040-MADRID

**MUTUALISTEN INFORMAZIO BULEGOA (MIB)**
**(aurrez aurreko arretarik gabe)**
Aurrez aurreko arretarik gabeko bulego nagusia, kontsulta orokorretarako. Telefono-zenbaki honen bidez egin daitezke: 060 (eskatu operadorea). Bestela, mutualistei arreta inprimakia bidali daiteke webgunearen edo aplikazioaren bidez, aurretiaz erregistratu gabe.

**PROBINTZIA ZERBITZUAK**
**Izan gogoan:**

* **Aurrez aurreko arreta** behar baduzu, larrialdi sanitarioak eta farmazia-larrialdiak aurretiazko hitzordurik gabe artatzen dira. **Aurretiazko hitzordua** eska daiteke gure egoitza elektronikoan edo gure aplikazioaren bidez. NANa eta mugikor bat besterik ez dituzu behar. Orobat, 060 zenbakira deitu dezakezu, eta "aurretiazko hitzordua MUFACEn" esan, NANa eta posta-kodea adierazita.

* Orotariko kontsultak egin daitezke **mutualistei arreta emateko inprimakia** erabiliz. Hemen dago eskura: https://www.muface.es/muface_Home/eu/atencion-al-mutualista/Formulario.html.

Informazioa lortzeko bitarteko arina da. Aurretiaz erregistratzea ez da beharrezkoa, eta webgunearen zein aplikazioaren bidez erabili daiteke. Zurekin harremanetan jartzeko oinarrizko datuak adieraztean, inprimakia dagokizun probintzia-zerbitzura bideratuko da, mutualista bazara.

* **75 urte edo gehiagoko mutualistek MUFACE75 telefono-zerbitzua erabili dezakete.** Kolektibo horretarako erreserbatuta dago, eta direktorioan ageri da haren probintzia-zenbakitzea.

* MUFACEren bulegoek erregistro-zerbitzua eskaintzen dute aurrez aurre, **cl@ve identifikazio elektronikoa** lortzeko. Aurretiazko hitzordua behar da.

* Ez etorri gure bulegoetara **txeketegi** bila. Txeketegiak eskuratzeko, erabili hauetako bat: aplikazioa, egoitza elektronikoa, 060 telefonoa ("MUFACEren txeketegia" esanda), MUFACE75 zerbitzuen probintzia-telefonoak (75 urte edo gehiago izanez gero) edota posta arrunta.

**AURREZ AURREKO ARRETA ETA TELEFONO BIDEZKOA ESKAINTZEN DUTEN BULEGOAK**

**ARABA/ ÁLAVA**
C/ Manuel Iradier n.º 11, 1.º.
01005 - VITORIA-GASTEIZ
**945 75 05 00**
MUFACE 75 / 945 75 05 00

**ALBACETE**
C/ Periodista del Campo Aguilar s/n, 2.ª p., Ed. Anexo Subdeleg. Gobierno.
02002 - ALBACETE
**967 75 05 00**
MUFACE 75 / 967 75 05 05

**ALICANTE/ ALACANT**
C/ Pintor Cabrera n.º 26, bajo.
03003 - ALICANTE/ALACANT
**96 500 05 00**
MUFACE 75 / 965 00 05 05

**ALMERÍA**
C/ Álvarez de Castro n.º 27, bajo.
04002 - ALMERÍA
**950 75 05 00**
MUFACE 75 / 950 75 05 05

**ASTURIAS**
Pza. de España n.º 3, 1.º izq.
33005 - OVIEDO
**98 475 05 10**
MUFACE 75 / 984 75 05 16

**ÁVILA**
Pza. Sánchez Albornoz n.º 4, bajo.
05001 - ÁVILA
**920 75 07 00**
MUFACE 75 / 920 75 07 00

**BADAJOZ**
Avda. de Europa n.º1, 4.ª pl.
06004 - BADAJOZ
**924 99 05 00**
MUFACE 75 / 924 99 0513

**ILLES BALEARS**
C/ Miquel Capllonch n.º 12.
07010 - PALMA DE MALLORCA (ILLES BALEARS)
**971 98 05 00**
MUFACE 75 / 971 98 05 06

**BARCELONA**
Passeig de Gràcia n.º 55-57, 2.º y 7.º.
08007 - BARCELONA
**93 619 00 20**
MUFACE 75 / 93 619 00 29

**BIZKAIA**
C/ Barroeta Aldamar n.º 1, 2.º.
48001 - BILBAO (BIZKAIA)
**944 50 05 20**
MUFACE 75 / 94 450 05 20

**BURGOS**
C/ Vitoria n.º 28, 1.º dcha.
09004 - BURGOS
**947 75 05 20**
MUFACE 75 / 947 75 05 20

**CÁCERES**
C/ Virgen de la Montaña n.º 13, 1º.
10004 - CÁCERES
**927 75 05 10**
MUFACE 75 / 927 75 0510

**CÁDIZ**
Glorieta de la Zona Franca s/n. Edificio Glorieta 2.ª planta.
11011 - CÁDIZ
**956 99 25 00**
MUFACE 75 / 956 99 25 05

**CANTABRIA**
Alameda Jesús de Monasterio n.º 10.
39010 - SANTANDER (CANTABRIA)
**942 99 05 00**
MUFACE 75 / 942 99 05 05

**CASTELLÓN / CASTELLÓ**
C/ Escultor Viciano n.º 2, 2.ª planta.
12002 - CASTELLÓN DE LA PLANA/ CASTELLÓ DE LA PLANA
**964 75 05 00**
MUFACE 75 / 964 75 05 05

**CEUTA**
C/ Velarde nº1, bajo.
51001 - CEUTA
**956 98 47 00**
MUFACE 75 / 956 98 47 00

**CIUDAD REAL**
C/ Juan II n.º 5, 1.º.
13001 - CIUDAD REAL
**926 99 05 00**
MUFACE 75 / 926 99 05 00

**CÓRDOBA**
Avda. Conde de Vallellano n.º 6, bajo.
14004 - CÓRDOBA
**957 99 05 00**
MUFACE 75 / 957.99.05.05

**CORUÑA, A**
C/ Sinfónica de Galicia n.º 3 y 5.
15004 - A CORUÑA
**981 99 50 10**
MUFACE 75 / 981 99 50 15

*OFICINA SANTIAGO DE COMPOSTELA*
Avda. Rosalía de Castro n.º 23, bajo.
15706 - SANTIAGO DE COMPOSTELA
**981 98 15 50**
MUFACE 75 / 981 99 50 15

**CUENCA**
C/ Mariano Catalina n.º 6, bajo.
16004 - CUENCA
**969 75 05 00**
MUFACE 75 / 969 75 05 00

**GIPUZKOA**
C/ Txofre n.º 5-7. 20001- DONOSTIA/ SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)
**943 98 04 10**
MUFACE 75 / 943 98 04 10

**GIRONA**
Avda. de Jaume I n.º 47, 2.º.
17001 - GIRONA
**972 99 05 40**
MUFACE 75 / 972 99 05 48

**GRANADA**
Avda. Pablo Picasso n.º 32, bajo.
18008 - GRANADA
**958 90 04 00**
MUFACE 75 / 958 90 04 05

**GUADALAJARA**
C/ Rufino Blanco n.º 1, entreplanta.
19003 - GUADALAJARA
**949 75 05 00**
MUFACE 75 / 949 75 0500

**HUELVA**
C/Martín Alonso Pinzón n.º 15.
21003 - HUELVA
**959 75 05 00**
MUFACE 75 / 959 75 05 00

**HUESCA**
Avda. de los Pirineos n.º 13, 1.º D.
22004 - HUESCA
**974 75 05 00**
MUFACE 75 / 974 75 05 00

**JAÉN**
C/ Bernabé Soriano n.º 29, 1.º.
23001 - JAÉN
**953 99 05 10**
MUFACE 75 / 953 99 0510

**LEÓN**
Avenida de la Facultad Veterinaria n.º 13, 1.º.
24004 - LEÓN
**987 99 05 00**
MUFACE 75 / 987 99 05 00

**LLEIDA**
C/ Sant Carles n.º 28.
25002 - LLEIDA
**973 99 05 00**
MUFACE 75 / 973 99 05 05

**LUGO**
C/ Irmans Vilar Ponte n.º 8.
27002 - LUGO
**982 75 05 00**
MUFACE 75 / 982 75 05 05

**MADRID**
*OFICINA DELEGADA N.º 2*
C/ Modesto Lafuente n.º 68, bajo.
28003 - MADRID
**91 273 48 02**
MUFACE 75 / 91 273 95 65

*OFICINA DELEGADA N.º 4*
Avda. de Pablo Iglesias n.º 2, planta baja.
28003 - MADRID
**91 273 48 05**
MUFACE 75 / 91 273 95 65

**MÁLAGA**
Avda. de Andalucía, n.º 17, entreplanta.
29002 - MÁLAGA
**952 998 540**
MUFACE 75 / 952 99 85 45

**MELILLA**
Avda. de la Marina Española n.º 3.
52001 - MELILLA
**952 990 700**
MUFACE 75 / 952 99 07 00

**MURCIA**
C/ Condestable n.º 5, entresuelo, izq.
30009 - MURCIA
**968 98 05 00**
MUFACE 75 / 968 98 05 06

**NAVARRA**
C/ Paulino Caballero n.º 41, 1.º.
31003 - PAMPLONA
**948 99 05 10**
MUFACE 75 / 948 99 05 10

**OURENSE**
C/ Bedoya n.º 11, entreplanta.
32004 - OURENSE
**988 75 05 00**
MUFACE 75 / 988 75 05 05

**PALENCIA**
Avda. Manuel Rivera n.º 10, entreplanta.
34002 - PALENCIA
**979 99 05 10**
MUFACE 75 / 979 99 05 10

**PALMAS, LAS**
Avda. del Alcalde José Ramírez Bethencourt n.º 12, Ed. F.
35004 - LAS PALMAS DE GRAN CANARIA
**928 99 05 00**
MUFACE 75 / 928 99 05 05

**PONTEVEDRA**
C/ Sagasta n.º 2, entresuelo.
36001 - PONTEVEDRA
**986 98 15 00**
MUFACE 75 / 986 98 15 06

*OFICINA DELEGADA EN VIGO*
Plaza de Compostela n.º 3 (edificio de Correos).
36201 - VIGO
**986 98 05 30**
MUFACE 75 / 986 98 15 06

**RIOJA, LA**
C/ Hermanos Moroy n.º 8, 3.º C.
26001 - LOGROÑO (LA RIOJA)
**941 75 05 00**
MUFACE 75 / 941 75 05 00

**SALAMANCA**
C/ Los Apóstoles n.º 1, 3 y 5.
37002 - SALAMANCA
**923 75 05 00**
MUFACE 75 / 923 75 05 00

**SEGOVIA**
Carretera de Madrona n.º 9.
40002 - SEGOVIA
**921 75 05 00**
MUFACE 75 / 921 75 0500

**SEVILLA**
Avda. San Francisco Javier n.º 9. Edificio Sevilla-2, 1.ª planta.
41018 SEVILLA
**95 556 34 40**
MUFACE 75 / 955 56 34 45

**SORIA**
Ronda Eloy Sanz Villa n.º 8, bajo.
42003 - SORIA
**975 75 05 10**
MUFACE 75 / 975 75 0510

**TARRAGONA**
Avda. de Catalunya n.º 52, 1.º.
43002 - TARRAGONA
**977 99 05 00**
MUFACE 75 / 977 99 05 05

**SANTA CRUZ DE TENERIFE**
C/Milicias de Garachico n.º 1, 1.º (Edificio Hamilton)
38002 - SANTA CRUZ DE TENERIFE
**922 99 05 00**
MUFACE 75 / 922 99 05 05

**TERUEL**
C/ Portal de Valencia n.º 1.
44001 - TERUEL
**978 99 05 00**
MUFACE 75 / 978 99 05 00

**TOLEDO**
C/ Miguel de Cervantes n.º 4, 5.ºA.
45001 - TOLEDO
**925 99 05 00**
MUFACE 75 / 925 99 05 00

**VALENCIA/ VALÈNCIA**
C/ Arquitecto Mora, n.º 1.
46010 – VALENCIA/VALÈNCIA
**96 307 30 00**
MUFACE 75 / 96 307 30 05

**VALLADOLID**
P.º Hospital Militar n.º4.
47007 - VALLADOLID
**983 99 07 10**
MUFACE 75 / 983 99 07 15

**ZAMORA**
Avda. Tres Cruces n.º 18, bajo.
49008 - ZAMORA
**980 75 05 20**
MUFACE 75 / 980 75 05 20

**ZARAGOZA**
P.º Sagasta n.º 50, 1.º.
50006 - ZARAGOZA
**976 99 85 10**
MUFACE 75 / 976 99 8515

**ATZERRIAN DAUDEN LANGILEENTZAKO MUFACEREN BULEGO DELEGATUA**
Plaza de la Provincia n.º 1, 6.º.
28012 - MADRID
**91 394 87 57**

**PARTAIDAREN BULEGOA (Estatuko Administrazio Orokorraren Pentsio Plana)**
Plaza Ciudad de Viena n.º 4 (Edificio B).
28040 - MADRID
**91 273 98 87**
Correo electrónico:
participeplan.age@muface.es

NIPO: 232250021

muface
ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBILEKO FUNTZIONARIOEN MUTUALITATEA

# ZERBITZUEN KARTA 2025-2028

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICA